

AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA IKUSKARITZARI BURUZKO EKAINAREN 28KO 98/2016 DEKRETUA ALDATZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA ALDEZ AURRETIK ONARTZEKO

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak II. kapituluan xedatzen duenez, arloan eskumena duen sailburuaren aginduz hasiko da xedapen orokorrak egiteko prozedura.

Lege horren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, "xedapen orokorren egitasmoak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak alde aurreko onarpena eman beharko dio dena delako testu artikulatuari, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik".

Aldez aurretik, sailburu honek Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzari buruzko ekainaren 28ko 98/2016 Dekretua aldatzen duen Dekretu-proiektua egiteko prozedura hasteko agindu zuen.

Dekretu-proiektuaren testua idatzi ondoren, hasteko agindu horretan ezarritako helburuarekin bat etorritz, alde aurreko onarpena eman behar zaio.

Hori guztia dela eta, honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.- Aldez aurretik onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzari buruzko ekainaren 28ko 98/2016 Dekretua aldatzen duen Hezkuntzako sailburuaren Dekretu-proiektuaren testua.

Bigarrena.- Xedapen hori egiteko prozedura amaitzeko behar diren instrukzio-egintzekin jarraitzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren egunean,

Begoña Pedrosa Lobato
Hezkuntzako sailburua

